


12. ELABERRIAK IDAZTEKO BIDE BERRI BATEN SENDOTZEA



XX. mendearen hasierarekin batera nobelagintzak errotik berritu zituen ordu arteko idazmoldeak. Garai berriei kontamolde berriak egokitu beharra zegoen; ondorioz, irakurleei parte hartze handiagoa eskatuko zaie eleberri bat irakurtzean. Bukatu dira eleberri errealistan pertsonaiei buruz eskaintzen zitzaizkigun xehetasun eta zehaztapen zerrenda luzeak, edo ilunak suertatzen ziren pasarteei buruzko azalpenak. Irakurleek izen zehatzik gabeko pertsonaiekin egingo dute topo (adibidez, Josef K.) edo bukaeratik hasten diren eleberriei (adibidez, *Denbora galduaren bila*), edo argumentu zehazgaitzak dituzten testuekin (adibidez, *Finnegan's Wake*).

Izatearen absurdoa mugetaraino eramanez (Kafka), denbora narratiboa irauliz (Proust), kontamolde eta estiloak berrituz (Joyce) edo pertsonaien kontzientziak testuratu (Woolf), kontaketa abenturan murgilduko gara. Eta abentura honek mende erdialdean Frantzia sortu zen nobelagintza berriraino ere eramango gaitu, bidean aurkituko ditugun aitzindariak (Beckett) lagun ditugula.

a) XX. mendearen lehenengo erdia

1. Marcel Proust (1871-1922)



Hogeigarren mende hasierako Frantziako literaturari begirada bat botaz gero, Proust da, zalantzarik gabe, guztien gaineratik gailentzen den idazlea. Parisen jaioa, Proustek ez zuen, idazteaz gainera, beste lanik egin behar izan, bere ondasunei esker eroso bizi ahal izan baitzen. Egileak ezagutu zuen mende amaierako Paris dekadentea, aristokrata eta goi mailako burges "snob" ez betea, bere lehen obran islatu zuen: *Plazerrak eta egunak* (1896).

1905ean mundutik bakartu eta bere bizitzako obra erraldoia izango zena idazten hasi zen: zazpi alez osatutako *Denbora galduaren bila* nobela handia. Nobela hau Proustek bizi izandako garai dekadentearen iruditza har badezakegu ere, askoz ere konplexu eta aberatsagoa da bertan kontaktzen zaiguna. Eleberri errealistaren kronologia lineala apurtuz, egitura zirkularra du *Denbora galduaren bila* nobela erraldoiak. Horregatik hasten da lehenengo alean amaieratik, oroimenaren kapritxoek baldintzatzen dutelako gertakari antolamendua: elipsiak, denbora jauziak..., guztiak daude nobelaren antolamenduaren mesedetan. Horiei gehitzen badizkiegu amodioaz, oroimenaz, denboraz, arteaz, heriotzaz edo homosexualitateaz egiten diren hausnarketak, edo deskribapenen lirikotasuna, erraza da lan honen garrantzi literarioaz ohartzea.

2. James Joyce (1882-1941)



XX. mendeko nobelagilerik funtsezkoenetako bat da, narratzira ekarri zituen berrikuntzengatik. Bere obra guztia, idazleak maitatu eta gorrotatzen zuen Irlandaren inguruan dabil. Hasierako liburuak honako hauek dira: *Dublindarrak* (1914) eta *Artistaren gaztetako portreta* (1917); azken hau autobiografikoa eta teknika berriagokoa.

Ulises (1922), bere maisu lana, obra gailena da literaturaren historian. Dublindar batzuen bizitza-egun bat kontatuz, gure garaiko gizaki arruntaren bizimodua azaltzen zaigu, Homeroren *Odisea*-ren parodia batean. Nabarmenena baliabide formal berriak dira: barne bakarrizketak, denboran zeharreko jauziak, lengoaiaren etengabeko esperimentazioa,

etab. Edozein ikuspuntutatik begiratuta, ordu arteko eleberri burgesaren konbentzio literarioak irauli zituen Joycek, eta gizon modernoaren, antiheroiaeren epopeia nobelatua eskaini zuen.

3. Virginia Woolf (1892-1941)

Virginia Woolf (1882-1941) garrantzitsua dugu literaturaren munduan, batez ere kontutan harturik zer berrikuntzak zabaldu zituen nobelaren forma lantzeko orduan.



Giro intelektual aberatsean hezia, 1912an Leonard Woolf-ekin ezkondu zen eta 1913an eman zuen argitara bere lehenengo nobela, *Joaneko bidaia*. 1917an, bere senarrarekin batera, The Hogart Press argitaletxea sortu zuen, garaiko idazle garrantzitsu askoren argitaratzaile bihurtuko zena (T.S. Eliot, K. Mansfield, E.M. Foster, R. Graves...).


Virginia Woolf Londreseko Bloomsbury auzo aberatsaren izena zeraman taldeko kidea izan zen. Taldea 1899an sortu zuen Virginiaren neba Thoby-k, eta 30eko hamarkadan desagertu zen, faxismoa Europan zabaltzen hasi zenean. Abangoardia taldeen ezaugarriak zituen eta moral victoriarra deuseztatu nahi izan zuen, bereziki sexu arauetara zegozkien jarretan.

Haren osasun arazoek ere V. Woolfen irudi elezaharretakoa areagotzen lagundu dute. Amaren heriotzaren ostean izaten zituen krisi maniako-depresiboek edo poltsikoetan harriak sartuta Ouse ibaira bere burua botaz aukeratu zuen hiltzeko moduak eragin dute irudi hori. Dударik ez dago, beste hainbat emakume idazleri gertatu zitzaion bezala, gaixotasuna izan zela bere bizitza aristokratikoaren akuilu, horri "esker" garaiko etxeakoandreen betebeharez (amatasuna barne) libratu eta bere obra burutzea lortu baitzuen Woolfek.

Virginia Woolfen eleberriek pertsonaien barne munduan murgiltzen gaituzte. Joyce-ren antzera, barne bakarriketaren teknika maisuki darabil, eta lirikotasuna bihurtzen du bere idazmoldearen oinarri. XX. mende hasieran gailendu ziren kontateknika berrien erabilerekin (barne bakarriketa, perspektibismoa, denbora narratiboaren etendura...) munduan egoteko eta sentitzeko modu berria iradoki nahi digu.

Virginia Woolf-en obran tratamendu berezia duen beste alderdi bat denborarena da. Nahiz epe labur jakinen batuketa bezala, nahiz urte eta mendetako segida bezala ematen zaigu. Hartara, unean-uneke gertaera mugatuak askotan txertaturik darama denbora unibertsal baten zentzua, lehenagoko eta geroko esperientziekin kateaturik. Ildo beretik doa ikuspegi desberdinen erabilera, hainbat narratzailearen esku utziz kontaketa lana.

Bere eleberrien artean hauexek dira azpimarragarrienak: *Mrs. Dalloway* (1925), *Farorantz* (1927), *Orlando* (1928) eta *Olatuak* (1932).



Teknika aldetik gehien landutako nobelak *Mrs. Dalloway* (1925) eta *Farorantz* (1927) ditugu. Bertan tinko heltzen dio formari, sinbolismoaren bidetik egitura eta irudi berdinarrek errepikatuz. Badirudi liburu osoa sare baten barne dagoela, arau zehatzen menpe. Guzti hau bere garaian ezohiko jarrera zen literaturarekiko, eta bizitzaren ispilu gisa behin eta berriro natura agertuz, beste tankera bateko bidaia eskaintzen dio irakurleari, batzuetan haize gainean basoko arbola-gailurretan barrena, bestetan itsasoz urruneko faro aldera, ortzi-muga zabaletik inoren buru barrura aise eta arin aldatuz, unibertso osoa bat egirik balego bezala inoren gogoetekin.

Farorantz elaberrian, armiarma sare konplexua osatzen dute protagonisten bakarriketa eta solasek. Ramsaytarrek farorantz egiten duten txangoa da nobela honetako aitzakia narratiboa baina, era berean, denbora jauzi nabarmenek garai desberdinetan bizi izandako emozio eta asaldurak kontaktzen dizkigute. 1914ko arratsalde batean ezinezkoa izan zen irteera bat 10 urte geroago egitea lortzen dute pertsonaiek, baina ordurako zenbait protagonista hilik daude. Pertsonaien pertzepzioen mosaikoa Lily Briscoe pertsonaia margotzen duen koadroarekin osatzen da.

Bestalde, Virginia Woolf feminista garaikideen aitzindaritzat ere hartzen dute askok, berak salatu baitzituen XIX. mendeko emakume idazleek jasan behar izaten

zituzten presio izugarriak idazteko denbora eta espazio baten jabe izateko; bestalde, gehienak beren etxeetatik irten gabe bizi ziren eta idazketa, gehienetan, etxeko beste eginbeharrekin uzartu behar izaten zen. Bere iritziz, emakume haiek proba gairiditu egin zuten, eta XX. mendeko emakumea prest zegoen goi mailako literatur lanak idazteko.

4. Thomas Mann (1875-1969)



Eleberri intelektual eta erreflexiboen adierazle, idazle alemaniar hau ideiak nobela handien bidez kontatzeko moduaren ordezkari onena da. Bere lehenengo nobela *Buddenbrooks*-en (1901), familia baten dekadentzia kontatzen du lau belaunalditan zehar, modu honetan XIX. mende bukaerako burgesiaren eta bitzta espiritualaren erretratua eginez.

1924an *Mendi magikoa* nobela ezaguna eman zuen argitara Mannek, Suitzako osasun etxe batean gertatzen den istorioaren aitzakian; gaixotasunaren gogortasuna nahiz Mundu Gerrako basakeriaren kontaketa egiten du nobela horretan.

Horrez gain, saiakera lanak, ipuinak eta nobela motzak (*Herioa Venezian*, 1912) ere idatzi zituen. 1929an Literaturako Nobel Saria

jaso zuen.

5. Franz Kafka (1883-1924)



Franz Kafka, Pragan jaioa eta alemanez egiten zuen judutarra zen. XX. mendearen obrarik bitxienetako baten egilea izan zen. Bere nobela eta ipuin harrigarrietan, pertsonak esplikaziorik gabe zapalduak gertatzen diren mundu mingarria, ia-ia amesgaiztokoa, aurkezten du modu alegorikoan.


Metamorfosia (1916) lanean gizon bat intsektu ikaragarri bihurtzen da. *Prozesua* obraren protagonista, K, salatua, epaitua eta zigortua da zergatik jakin gabe. *Gaztelua* lanean, lur neurtzaile batek ezin du gazteluan sartu, ezta bere jabea ezagutu ere.

Espressionismo literaturara eramanaren ordezkari jotzen da Kafka. Termino hori pinturatik dator, eta errealtatea itxuraldatuta eta mugitua irudikatzen duen estiloa da, horrela artistaren barneko kezak islatuz.

b) XX. mendearen bigarren erdia

Aurreko atalean ikusi dugun moduan, XX. mendearen lehenengo erdialdean, Proust, Joyce, Woolf, Kafka eta bestek erroitik berri zuzten eleberrigintzaren kontateknika eta unibertso literarioak. Berrikuntza hauek jarraipena izango dute mende erdialdean Frantziar sortzen den nobela berriarekin eta, berriro ere, esperimentazioan —idazketan bertan— ardura jartzen duen nobelagintzak liluratuko ditu mende honetako hainbat sortzaile.

Samuel Beckett (1906-1989)



Samuel Beckett idazle irlandarra eleberri berriaren aitzindarietako bat da. Isiltasunaz, kontaktaren beraren ezintasunaren gaiak mintzo ziren nobela harrigarriak idatzi zituen. 1969an Nobel saria erdietsi zuen dublindar honen ibilbide literarioan nobelak, antzezlanak, irrati-saioak, gidioak eta hainbat lan berritzaile gelditu dira.

Hizkuntzari dagokionez, 1945a arte ingelesez idatzi zituen nobelak, *Murphy* eta *Watt* bezala; 1946an *Mercier eta Camier* nobelarekin frantses hizkuntza erabiltzen hasi zen. Gerora etorriko zen *Molloy* (1951), *Malone hiltzen da* (1951) eta *Izendaezina* (1953) eleberriek osatutako trilogia, hain zuzen ere Becketten emaitza narratiborik interesgarriena; hiru eleberrietako istorioak gero eta ahulagoak dira eta pertsonaiak, orobat, gizatasuna galduz doaz, izendatu ere ezin egin daitekeen pertsona bat bihurtu arte.

Noveau Roman (Nobela Berria)

60ko hamarkadan izen hori hartu zuen bereziki Alain Robbe-Grillet eta Nathalie Sarraute idazle frantziarren terORIZAZIOEN ERAGINEZ ERATU ZEN MUGIMENDUAK. Nobela berri horretarako zenbait ezaugarri literario proposatzen ziren:

- Nobelagintza tradizionala pertsonaia sendoetan oinarritzen bazen, nobelagintza berriak auzitan jarriko du pertsonaiaren beraren irudi eta garrantzia
- Nobelagileak, ahal dela, desagertu egin behar du nobelatik; objetibotasun osoz kontatuko du ikusten duena, interpretazio oro saihestuz
- Pertsonaien analisi psikologikoa saihestu egiten da
- Denborari eta espazioari dagokienez, mende hasierako berrikuntzak aintzat hartzen dira (barne bakarriketa, denbora-jauziak...)
- Forma da garrantzizkoena, alegia, nobela kontatzeko eta antolatzeko era: "idazketa baten abentura da nobela"
- Irakurleak garrantzia, protagonismo handiagoa hartu behar du testuaren aurrean; sortzaileagoa izatea eskatzen zaio

Joera honetako, alegia, *Noveau Roman* joerako idazlerik garrantzitsuenak hauexek dira:

Nathalie Sarraute (1902-1993)

Bere eleberrietan, pertsonaien azterketa psikologiko tradizionala saihestu eta berak "azpi-elkarrizketa" deritzonaren teknika darabil. Modu honetan, elkarrizketetan esaten denak eta esaten ez denak (keinuek, doinuek, isiluneek...) pertsonaien irudikapen sinesgarriagoa ahalbidetzen dute. Azken batean, nobela psikologiko mota berri bat proposatzen zaigu.

Alain Robbe-Grillet (1922-2008)

Hasierako nobeletan (*Labirintoan*, 1959, adibidez) kontamolde objetiboa erabili zuen: begiak ikus dezakeena soilik kontatzen da, zinema kamera bat balitz bezala, begiaren beraren mugimenduei jarraituz. Kontateknika zinematografiko horiek gero eta gehiago hurbildu zuten egilea zinemaren mundura; horrela, hainbat zinema-zuzendarirekin kolaboratzen hasi zen, hasieran gidoilari moduan eta azkenean zuzendari moduan ere bai.

Claude Simon (1913-2005)

Nouveau Roman-eko egileen artean, Nobel saria lortu duen bakarra, 1985ean, hain zuzen ere. Zatika, oroimenaren bidez osatzen doazen istorioak kontatzen dizkigu. Modu horretan, puzzle bateko piezak bailiran testuratzen dira pertsonaiaren iragana eta bizipenak.

Marguerite Duras (1914-1996)


Bere eleberriek unibertso berezia osatzen dute. Idazle oso emankorra (70 liburutik gora idatzi zituen), denetarik idatzi zuen: eleberriak, zinemarako gidoiak, saiakera, kazetaritza artikulak... Generoen mugekin jolastuz, amaiera jakinik gabeko testuak jartzen dizkigu aurrean. Aipa dezagun *Maitalea* (1991) eleberria, zinemara J.J. Annaud zuzendariak eraman zuena, prosa harrigarrian kontatua. Nobela honetan idazleak hamabost urte zituenean merkatari txinatar aberats batekin izandako amodiozko harremana kontatzen da lehenengo pertsonan.



Virginia Woolfen biografia

1941eko martxoaren 28an egin zuen bere buruaz beste Virginia Woolf idazleak. XX. mendearen hasierako idazle eta saiogile britainiar entzutetsua izan zen Virginia. Argitaratu zituen lanez gain, gorabehera handiko bizimodua izan zuelako bihurtu zen ezaguna eta gainera, heriotza dramatikoa izan zuen, bere buruaz beste egin baitzuen. Virginia Woolf (1882-1941) idazle londrestar ezagunaren ezkonarreko izena *Adelina Virginia Stephen* zen.

Aita Sir Leslie Stephen (1832-1904), goiko argazkian alabarekin dagoena. Aita nobela-idazlea, historialaria, saiolaria, biografia-egilea eta mendizalea izan zen. Julia Prinsep Jackson izan zuen ama (1846-1905), **Prerrafaelisten** mugimenduko hainbat pintoreren modelo izandakoa, Edward Burne-Jones-ena, esaterako. Virginia Woolfen gurasoek beste hiru seme-alaba izan zituzten elkarrekin: Vanessa (1879), Thoby (1880) eta Adrian (1883). Gurasoak bigarrenez ezkonduak zirenez, aurreko familietatik zeuzkaten seme-alabekin familia handia osatu zuten. Hyde Park Gate, 22 (Kensington) izan zen Virginia gaztearen etxea eta ikastetxea: hantxe jaso baitzuen aitaren eta hainbat irakasleren eskutik eskola-ordu mordoa, ez baitzen eskolara joan. Maiz joaten zen jende ezaguna bere etxera: Alfred Tennyson, George Henry Lewes, Julia Margaret Cameron, Thomas Hardy, Henry James eta Edward Burne-Jones. Aitak ospe handia zuen editore, kritikari eta biografia-egile bezala. Beraz, garai victoriarreko literatura-giroaren eraginpean hezia izan ziren Stephendarrak. Virginiaren ama ere bazen norbait, arbasoen artean zeukan Maria Antonietaren laguntzalea izandako bat. Eta bere familiako emakume asko izan ziren pintore eta lehenengo argazkilarien modelo ezagunak. Gainera, familia honek bazuen beste ezaugarri aipagarri bat: etxean liburutegi erraldoi bat zuten. Hantxe zuten bi ahizpek, Virginiak eta Vanessak, eskura literatura klasikoa eta ingelesa ere bai. Nebek hezkuntza ohikoagoa jaso zuten. Etxean hori guztia izan arren, umetako unerik gozoenak eta bizienak St. Ives herrian (Kornualles) izan zituela dio Woolfek. Familiaren opor-lekua izan zen 1882-84 urte bitarteko udetan. Talland House izeneko etxea hondartzari begira zegoen, eta Godrevy-ko faroa ikusten zen.



To the Lighthouse eleberrian ikusten da batez ere opor-giro hori. Eleberri honi eta honen aurreko *Mrs Dalloway* eleberriari esker hasi zen Virginia kritikarien laudorioak jasotzen. Beren originaltasuna aipatzen zuten, eleberrien poetikotasuna. Barne-bakarriketa teknika moldatu zuen "kontzientziaren jarioa" (stream-of-consciousness) garatuz eta erabiliz. Beste nobela garrantzizko bat *A Room of One's Own* da, eta bertan emakumeen eskubideen alde egingo du. Biografiara itzuliz, Virginiak 13 urte zituenean, ama hil egin zitzaion eta bi handik urtetara Stella ahizpaordea. Stella, ezkontza-bidaian hil zen peritonitisak jota. Ondorioz, Virginiak depresio handia sufritu zuen, baita 1904an ere, aita minbiziaren ondorioz hil zitzaionean. Honek guztiak eraginda, Virginia erietxera eraman behar izan zuten, denbora laburrez baina. Quentin Bell-ek, iloba eta biografo zenak, Virginiaren biografietako batean dio bere bi nebaordeekin, George eta Geraldekin izandako "harremana" ote zen depresioen jatorri. Bi gazteok abusu luzunak egiten ei zizkieten Virginiari eta Vanessari. Neurritz kanpoko jokabide hauen berri *A Sketch of the Past* eta *22 Hyde Parke* liburuetan adierazi zuen, baina oso modu ez agerikoan. Kontuak kontu, maiz oso deprimituta egoten zen, tristeegi. Eta maiz, oso alai, alaiegi. Itxuraz, "nahasmendu bipolarra" zuen Woolfek, aldarte-aldaketa handiak, eta

baita honekin lotutako beste gaitz batzuk ere. Sir Leslie Stephen hil zenean, Virginiak izandako depresio-aldia zela eta, etxea saldu zuten Vanessak eta Adrianek. Neba-arrebak Londresko Bloomsbury auzoan jarri ziren bizitzen, eta hara joaten ziren Thoby anaia zaharrenaren unibertsitate garaiko lagun asko eta asko: E. M. Foster idazlea, J.M.Kynes ekonomialaria, Bertrand Russell eta Ludwig Wittgenstein filosofoak... Bloomsburyko taldea osatzen zutenak. Talde honetakoa zen Leonard Woolf ekonomialaria ere, idazlearen senarra izango zena.




Biek 1917an Hogarth Press argitaletxe ezaguna sortu zuten: Virginia Woolfek bertan argitaratu zituen lan ugari, baita T.S. Eliot-ek eta Sigmund Freud-ek ere. Bloomsburyko taldeak ez zuen begiko bikotekideen arteko sexu-fideltasuna. Virginia Woolfek 1922an Vita Sackville-West idazle eta lorezaina ezagutuko du. Emakume ezkondua, bere maitalea izango da 1930 urtera arte edo. Lorezainari eskaini zion Woolfek *Orlando* liburua, lorezainaren semearen hitzetan "literaturaren historian inoiz idatzi den maitasun-gutunik luzeena, ederrena eta liluragarriena". Maitaleak izateari utzi ziotenean adiskide izatera pasatu ziren bi idazleak, Woolf hil zen arte. Virginia Woolf 1941ean hil zen, bere buruaz beste eginda. *Between the Acts* eleberria idatzita zeukan, argitaratzeko prest, eta garai hartan lagun batek bere biografia bat argitaratu zuen, baina oso harrera hotza egin zioten irakurleek. Bigarren Mundu Gerra ere hasia zen, alemaniarrek etengabe josi zuten bonbaz Londres, besteak beste Woolfen etxea suntsituz. Horrek guztiak ez zion batere lagundu idazlearen osasunari. Hala, 1941eko martxoaren 28an berokia jantzi, poltsikoak harriz bete, eta bere burua ibaira bota zuen. Itota zendu zen. Hil aurretik, arrazoiak azaldu zizkion senarrari, zenbat maite zuen adieraziz. Ahots arraroak entzuten zituela, eta ez zuela bizitzen jarraitu nahi senarraren bizitza hondatzen.

Azken Agurra

Virginia Woolfek bere burua hil aurretik gutun hau idatzi zion bere senarrari:

Argi sentitzen dut berriro erotzera noala. Ez dut uste garai latz horietako beste bat pasatzeko moduan gaudenik. Oraingoan ez naiz neure onera etorriko. Ahotsak entzuten hasi naiz, ezin naiz kontzentratu. Beraz, onena dela dirudiena egingo dut. Ahal denik eta zoriontasunik handiena eman didazu. Edonondik begiratuta ere, inor izan daitekeen guztia izan zara. Ez dut uste bi pertsonen arteko zoriontasun handiagorik izan daitekeenik... gaitz larri hau azaldu arte. Ez dut borrokatzeko indarririk. Badakit zure bizitza hondatzen ari naizela, baina ni gabe lan egin ahal izango duzu. Badakit. Egingo duzu. Ikusten duzu ezin dudala hau behar den bezala idatzi ere egin. Ezin dut irakurri. Esan nahi dudana da bizitzako zoriontasun guztia zuri esker dudala. Pazientzia handia izan duzu nirekin, eta erabat ona izan zara. Eta esan egin nahi dut, mundu guztiak baibaitaki. Inork salbatu ahal izan banindu zeu izango zinatekeen. Den-dena galdu dut, zure ontasunaren ziurtasuna salbu. Ez dut luzarago zure bizitza hondatzen segitu nahi. Ez dut uste bi pertsona gu biok izan garen baino zoriontsuagoak izan zitezkeenik. V.



Emakume eta feminista

Virginia Woolf (1882-1941) idazle handiak "emakumeak eta literatura" delako gaiari buruz "*Norberarentzako gela*" (*A room of one's own*) saiakera argitaratu zuen 1929an. Bertan, sorkuntzarako beharrezkoak diren bakartasuna eta independentzia ekonomikoa errebindikatu zituen: "Emakume batek, fikziozko obra bat idatzi nahi badu, diru pixka bat eta gela bat berarentzat behar ditu". Woolfek jakinaren gainean hitz egiten zuen.

Izen handiko familia britainiar baten ondorengoa, Virginia Stephen-ek, emakumezkoa izanik, ez zuen hartu bere neben pareko hezkuntzarik. Halere, izeba batengandik urtero 500 librako errenta eta "guztiz zoriontsu" egiten zuen gela propioa edukitzeko aukera izan zuen. Nobelagilea, saio-idazlea eta literatura kritikaria izateko, halere, beraren eta idazketaren artean traba egiten zion mamu bat akabatu beharra zeukan: erruduntasun femeninoaren sorburua den "etxeko aingerua" izan behararen mamua.

"Norberarentzako gela" saiakeran eguneroko bizitzako pasarteak deskribatzen ditu, eta emakumeen egoeraren sakoneko arazoez gogoeta egiten du, irudimena eta umore-sena erabiliz, erresuminik gabe. Nondik ote dator gizonezkoek beren nagusitasuna berretsi behar handi hori? Zer dela eta emakumezko jeinuen hain ale gutxi artearen historian? Baina nolako aukera zeukaten, eduki ere, barrenekoa adierazteko? "Emakumeek atenastar esklaboek semeak baino askatasun intelektual txikiagoa izan dute". "Jendearen arretarik eza, jeinu handiko gizonentzat hain jasanezina, etsaitasun bihurtzen da emakumeen aldetik datorrenean".

Konparazio ospetsu batean, honako hau irudikatu zuen: zer gertatuko ote zatekeen Shakespearek arte gaitasun handiko arrea bat izan balu? Antzerkian jardutea eskatuko zukeen agian, eta antzezlanaren zuzendariak, jarrera ulerkorrez, haurdun utziko zukeen eta emakumeak bere buruaz beste egin. Shakespearearen arrea zoritxarreko hori, dio Virginiak, "zuregan, nahiz niregan, nahiz zoru garbitzeari eta haurrez erditzeari ekiten dioten beste emakume askorengan bizi da".

Horren konponbideak? Feminismoaren klasiko bihurtu den obra honetan, Virginiak mundu "androginoa" (gizoa eta emakumea aldi berean) amesten du, gizaki ororentzat Virginia Woolfek bere garai sortzaileenean idatzi zuen



“Norberarentzako gela”.

Aldi horretan, beste lau nobela ere idatzi zituen, horietatik gailenena “Uhinak” maisulana (1931), Lan honetan bere narratiba inpresionistaren esperimentazioa gailurreraino eraman zuen, XX. mendeko berritzaile handienetakoa izatera ekarri zuena. Garrantzitsuena ez da argumentua, baizik eta unea hautematen jakitea, horixe baita pertsonaien izaera argiztatu eta kontzientziaren ibaian atzera begiratzeari bide ematen dion “argi-txinparta”.

Virginia Woolf (baita bere ahizpa ere, Vanessa Bell margolaria) ospetsua zen bere edertasun ahularengatik. Sarri triste eta nahigabetsu, estutasun eta depresioaldi itzelekin (bere buruaz beste egin zuen, sakelak harriz beteta uretan hondoratuz), distiratsu, alai eta fantasiatsu agertzen ere bazekien, batzuetan errukigabeko bihur zitekeen umore sen bereziarekin.

Literaturari ekinez eman zuen denbora, baina bazekien munduko plazerez gozaten ere. Londresen Bloomsbury auzotegian finkatu zen eta bertako intelektual taldeko goimailako kidea izan zen. Halere, pribilegiozko egoera horrek ez zion eragotzi gizarteko injustiziez eta emakumearen egoeraz argiro jabetzen. “Nola izan daiteke zoriontsu inor –esanarazten dio bere protagonistetako bati– miseria lehertzen ari den mundu honetan?”.

Bere neba-ordeen aldetiko sexu-abusuen biktima izan zen 14 urterekin. Gainera, ama hil zitzaion bat-batean eta berak oso maite zuen arreba bat ere bai geroxeago. Horrek guztiak krisi larriak eragin zizkion;

1912tik Leonard Woolfekin, bere senarra, nolabaiteko egonkortasuna lortu zuen, nahiz eta sexu-bizitzan erabateko porrota pairatu. Leonard haren ongizateaz eta literatur ibilbidean ezerk traba egin ez zieziaion arduratu zen eta depresioaldietan erizain gisara jardun zuen. Leonardek berak ebatzi zuen Virginia ahulegia zela haurrak izateko, eta horrek etengabeko frustrazioa sortu zion emakumeari. Ostera, biek batera sortu zuten argitaletxea, Hogarth Press, Ingalaterrako aurrerakoienetakoa, poz iturri izan zuten, alde intelektualetik ezezik, ekonomia aldetik ere bai. Vita Sackville West idazle, aristokrata eta lesbianarekin (nahiz eta bera ezkondua eta bi umeren ama izan) 1925ean hasi zuen maitasun harremanak lau urtez iraun zuen eta sexu alorreko aurreiritzi askotatik askatu zuen. Haien adiskidetasunak bizitza osoan zehar iraun zuen.

Nazien faxismoa garaile atera eta gerran sartzeaz zegoen 1938ko Europa hartan, “Hiru ginea” eztabaidatua argitaratu zuen, bere ideia bakezale eta feministak defendatuz. Diktadurak eta demokraziak buru-argitasun adarjotzailez aztertuz, bere herrialdeko balioei itsu-itsuan atxikitzeari uko egin zion eta bi erregimen mota horien puntu komun bat nabarmendu zuen: emakumeen segregazioa. Ingeles emakumeei azken 20 urteotan aitorturiko eskubideak –zioen– teoria hutsa dira: oraindik ez dago berdintasunik hezkuntzan ez lanean, eta ezkontza da, oraindik ere, neska asko eta askorentzat “irtenbide” bakarra.

Horrela, modu erabat berritzailez bateratzea lortu zuen feministen borroka eta tirania faxistaren aurkako ekintzaileena: “munstro honek –zioen gizonen mintzatu– zuon askatasuna tratatu egiten du... Zuon amak emakume izateagatik baztertuak, giltzaperatuak zirenean sentitzen zutena sentitzen duzue orain zeuon haragian. Orain judu, demokrata izatearren bazterten eta giltzaperatzen zaituztete”. Horregatik, “soluzioa ez datza zuon berbak, zuon metodoak behin eta berriro errepikatzean, baizik eta emakumezkoen sortze ahalmena kontuan hartzen duten beste hitz batzuk, beste metodo batzuk bilatzean”.

Horrela, Virginiak pentsaera patriarkalaren, gerraren eta faxismoaren artean egin zuen lotura hipotesia txit emankortzat hartu zuten 1970eko feministek.



Farorantz, Virginia Wolf

Argumentua: Farorantz hiru ataletan banatuta dago: "I. Leihoa" (19 pasarte), "II. Denborak aurrera" (10 pasarte) eta "III. Faroa" (13 pasarte). Atal bakoitza narratzaile ezberdinen pasarteetan banatuta dago, guztietan kontalari ezberdinen kontzientziaren jarioa deritzon teknika erabiltzen delarik.

I. Leihoa. Lehen Mundu Gerra hasten denean kokatzen da. Ramsay jaun-andreek euren 8 seme-alabak Hebridetan (Eskozia mendebaldeko irla multzoa) duten udako etxera eramaten dituzte. Euren etxe aurreko badiaren beste aldean itsasargi handi bat dago. James Ramseyk, sei urteko semea, kosta ahala kosta itsasargira joan nahi du, eta Ramsay andreak, eguraldi ona badago, hurrengo egunean joango direla esaten dio. Jamesek pozarren hartzen du erabakia, baina Ramsay jaunak hotz-hotzik eguraldi txarra dakarreal jakinazten dio. Jamesek txartzat hartzen du eta uste du aitak gozatu egiten duela berarekin eta bere neba-arrebekin krudela izanez.

Ramsaytarrek gonbidatuak dituzte udako etxean. Hauetakoa bat Charles Tamsley dugu, Ramsey jaunak filosofo metafisiko bezala egiten duen lana miresten duena. Etxean ostatu hartuta dagoen beste bat Lily Briscoe da, margolari gaztea, Ramsey andreaken erretratua margotzen ari dena. Ramsey andreak Lily Williams Bankes-ekin ezkontzea nahi luke, azken hau Ramsaytarren aspaldiko laguna dena, baina, Lilyk ezkongabe geratzea erabakitzen du. Ramsay andreak, ordea, beste ezkontza bat hitzartzea lortzen du, Paul Raley eta Minta Doyle-ren artean, euren beste ezagun bi.

Arratsaldean zehar, Paulek ezkontitza eskatzen dio Mintari. Lilyk koadro bat hasten du, Ramsey andreak minduta dagoen James lasaitzen du eta Ramsay jauna filosofo eta pentsalari bezala dituen muga hurbilak direla eta atsekabetuta guztiz, emaztearengana jotzen du kontsolamendu eske. Arratsalde hartan, Ramsaytarrek zoritzarreko afaria zirudiena izan zuten. Paul eta Minta hondartzan zehar Ramsaytarren seme-alaba birekin egindako paseotik berandu datoz afaltzera. Lily irainduta sentitzen da Charles Tamsleyk egindako komentarioekin, dioenean, emakumeak ez direla ez margotzeko, ez idazteko gai. Ramsay jaunak oso era desatseginetan jokatzeko du Augustus Carmichaelek plater bete zopa bigarren aldiz eskatzen duenean. Gauak aurrera egin ahala, dena den, tira-birak desagertu egingo dira eta gonbidatuak arratsalde ezin atseginagoa pasatuko dute elkarrekin.

Hala ere, zorionak, jaiak berak bezala, ezin luzaro iraun eta Ramsay andreak gonbidatuak jangelan utzi eta alde egingo du. Gertakaria iraganeko kontua dela nabaritutako zai Ramsay andreaki. Geroago, senarrarekin batuko egongelan. Bikotea elkarren ondoan esertzen da isil-isilk, Ramsay jaunaren ohiko ziurtasun ezak bake hura hausten duen arte. Emazteak maite duela jakin nahi du. Ramsay andreak ez da mota horretako adierazpenak egiten dituen emakumea, baina onartzen du agian hurrengo egunean eguraldi okerregia egingo duela itsasargiarainoko bidaia egiteko. Modu horretan Ramsay jaunak badaki Ramsay andreak maite duela. Gaua iristen da, eta gau bakoitzari azkar hurrengo gaineratzen zai.

II. Denborak aurrera. Denborak azkarrago egiten du aurrera nobela "Denborak aurrera" deritzon atalean. Europa osoan gerra hasten da. Ramsay andrea bat-batean hiltzen da gau baten. Andrew Ramsay, seme zaharrena, gerran hiltzen dute eta Prue alaba ere erditzean jasandako gaixotasun batek eraginda hiltzen da. Familiak ez ditu harrez geroztik oporrak udako etxean ematen, udako etxea bertan behera utzita da, sasiak daude lorategian eta armiarmek abiak egin dituzte etxe barruan. Hamar urte igaro dira familia berriro itzuli den arte. McNad andreak, etxezaina, emakume batzuk kontratatzen ditu etxea bere onera ekartzeko. Etxea ahanzturatik eta bertan behera egotetik ateratzen dute, eta dena behar bezala egotea lortzen dute Lily Briscoe itzultzen denean.

III. Faroa. Atal honetan denbora geldi-geldiro igaroko da berriz, **Leihoa** atalean bezala. Ramsay jaunak bera James eta Cam, alabetako bat, farora joango direla adierazten du. Itsas-bidaiko goizean, berandu irteteak humore txarrean jarri du Ramsay jauna. Lilyren onarpena bilatzen du bere izaera justifikatzeko, baina, Lily ez da Ramsay andreaken modukoa, eta ezin eman diezaioke Ramsay jaunak nahi duena. Ramsaytarrek itsasoratu egiten dira, eta Lily belardian esertzen da, azken bisitaldian hasitako koadroa amaitzeko erabaki irmoarekin. James eta Cam haserre daude aitarekin duen izaera bortitzagatik eta erakusten duen autokonpasio etengabeagatik. Hala ere, unzia helmugara ailegatzen ari den neurrian seme-alabek halako maitasun sententzia dute aitarekiko. Jamesek ere, marinel bezala duen trebeziagatik aitak goraiatu editen baitu, aitarekiko hurbiltasun une bat sentitzen du, aita guztiz gaitzesten duen arren. Badiaren beste aldean, Lilyk azken ikutua ematen dio bere koadroari. Azken pintzelkada jartzen du eta utzi egiten du, azkenik lortu du bere "bisionea".

Gai Nagusiak:

a) Bizitza esperientziaren konplexutasuna: Virginia Woolfen lanaren zati luzeek ez dagokie bizitzaren ikuspuntu ezberdinei, hori baino gehiago jendearen behaketa erari buruzko hausnarketa dira. Pentsaera ondo ulertzeko, Woolfen egunkarian aitortzen zaigunez, egileak bere buruaren jarioari adi, bere barne pentsaerari adi ordu luzeak ematen zituen, ikusten zuenaren arabera zein hitz eta emozio konkretuak sortzen ziren aztertzen.

b) Giza harremanen konplexutasuna: Hala ere, perzeptzioaren azterketa hau barne bakarriketatik ez ezik, gizakiaren harremanen testuinguruan ere egiten du, beste gizakien kontzientziaren barneko emozioak benetan

ezagutzeko azterketa da. Mr eta Mrs Ramseyk elkarren ondoan daudenean edota, nobelaren amaieran, Lily Briscoe Mr Ramseyren arretea nahia asebetetzen ahalegintzen denean adibidez.

Narrazioa eta ikuspegia:

Nobelak ez du bigarren kapituluaren (denborak aurrera) baino ez du narrazioa orojakilea; horren ordez narrazioak saltu egiten du pertsonaia bakoitzaren ikuspegi aldakor batetik bestera, kontzientziaren jario batetik bestera. Aldaketak perpaus beraren erdian ere gerta litezke, horrek itsasargiaren argi birakaria ekartzen digu gogora. James Joycek ez bezala, ordea, Woolfek ez du apurtzen bat-batean beste pertsonaien pentsamenduaren jario hori, Virginiak lirikoki parafraseatzen dituela esan daiteke. Narrazioa orojakilerik ez egoteak irakurlearentzat gidaririk ez egotea dakar, irakurleak eraiki behar du haria.

Pertsonaiak:

Mrs. Ramsay: Nobela hasieran ageri zaigun pertsonaia hau bihotz onekoa eta tolerantia da baina aldi berean, babeslea. Bere asmo nagusia semearen ametsak bizirik iraunaraztea da.

Mr. Ramsay: Emaztearen pertsonaiaren aurkaritza egiten duela esan daiteke, besteen aurrean irudi ona ematen saiatzen den arren gizon berekoi, gogor eta humore txarrekoa da, sarritan baita bortitza ere.

Lily Briscoe: Artista dugu, eta bere lan sortzaileak eta pasioak arduratzen du, Ramsey andreak irudikatzen duen familia tradizionalaren aurrean ezezko argia adierazten du.

KAFKA ETA ESPRESIONISMOA



Espresionismoa Alemanian XX. mendearen hasieran sortutako mugimendu kulturala izan zen, berez, egia esan naturalismoaren, inpresionismoaren eta tankera horretako mugimenduen aurkako mugimendua hain zuzen ere.

Mugimendu honek bilatzen duena "bizirik egotea" espresatzea, adieraztea, eta esperientzia emozionalak transmititzea errealitate fisikoa bera baino areago. Artistaren jokaera erralitatea guztiz eraldatzea da, distortsionatzea, kiribilkatzea eragin emozional bat lortzeko, artearen forma subjektibo bat transmititzea izango da helburua. Espresionismoa artearen era askotan gertatuko da: pinturan, literaturan, antzerkian, arkitekturan eta musikan. Espresionismoak, sarritan, antsietate emozionalerako ikutu bat dakar berarekin.

XIX. mendearen amaieratik hasia zen itxura hartzen mugimendu espresionista. Inpresionismoaren kontrako norabidean, artista espresionistak bere sentiberatasunaren arabera irudikatzen du kanpoko mundua. Beraz, erabat antierrealista da mugimendu espresionista. Zentzu honetan, mugimendu artistiko honek baditu, gutxienez, bi aitzindari nagusi pinturan: Van Gogh eta Edvard Munch. Azken honen Garrasia izeneko koadroa (1895) da gainbeheran dagoen gizarte ustel eta galdutik artistak etsipenez jaurti duen garrasi lazgarria. Koadro hau har daiteke espresionismoaren adierazpen grafikotzat. Paul Klee eta Wassily Kandinski dira joera berriaren izenik aipagarrienak. Lehen Mundu Gerraren ataritik 1930 inguru bitarte horretan, alemanez mintzatzen zen Erdialdeko Europa osora zabaldu zen Espresionismoaren eragina: Salzburgo/Viena (G.Trakl), Praga (F.Kafka eta E.Werfel) eta Berlin (G. Benn eta B. Brecht)



Berlingo Der Sturm ("Ekaitza") aldizkariak zabaldu zituen joera berriaren oinarriak literaturara. XX. mendeko artistak norbere baitatik, bere barne begiratutik moldatzen du kanpotik datorkion errealitate isurikor eta kaotikoa. Gerrarekin hondoratu zen ordu arteko Mendebaldearen norabidea. Humanismo arrazionalistaren eta aurrerabide etengabearen promesek bere alderdi iluna eta fantasmala erakutsi zuten gerraren triskantza izugarrian. G. Traklen



poesiak eta haren suizidioak -27 urte zituen-, edo Kafkaren eleberriek eta sator batenarekin aldera daitekeen bizitzak gizarteak bizi zuen nihilismoaren hondoa salatu zuten. Hondamendi hau aurrentitu zutenen artean daude Poe, Van Gogh, Dostoievski; Rimbaud, Strindberg, Nietzsche, Conrad...

Zinema espresionista klasiko bihurtu zen Robert Wieneren [Caligari doktorearen gabinetea](#) (1919) eta F. W. Murnau eta Fritz Langen [Metropolis](#) (1925) filmen eskutik.

Ero, suizida, hiltzaile eta tiranoz gainezka dago mundu espresionista; histeria eta bestelako ondoez patologikoek berebiziko inportantzia izan zuten Espresionismoaren mugimendu artistikoan eta, oro har, ondorengo Modernitate osoan.

Franz Kafka



1883an jaio zen Pragan eta 1924an hil zen Kierling-eko osasun etxean, Vienatik gertu. Txekiarra zen beraz, baina alemaniarra hizkuntzaz. Judua zen bestalde, merkatari aberats baten semea, eta haurtzaroa Austriako Inperio zaharrean eman zuen, eslabiar (txekiar), alemaniar eta judu kulturen arteko tentsioa bizi-bizia zen garaian, etortzear zen gerraren zantzuak agerikoak zituen giroan. Kafka, beraz, txekiar idazlea da, hizkuntzaz alemana, baina modu berean esan daiteke -hitz jokorik egiteko inolako asmorik gabe- alemaniar idazle judua dela, baina Pragan jaioa. Eta, ororen gainetik -edo azpitik- horixe zen batez ere: judua, etsaien hizkuntza bera zuen judua: nazien dejenerazioak hil zituen, bere heriotza esparruetara eramanda, Kafkaren hiru arreba eta Milena Jesenska, Kafkaren txekierazko itzultzailea eta, aldi berean, maitalea.

Eskolan ikasle ona izan zen, eta judu zintzoa, nahiz eta judu komunitatean nahitaetzko ziren erritoetan bakarrik parte hartu. Alabaina, gizarte usadioen kontra Kafkak barrurik sentitzen zuen kontrakotasuna agerian geratu zen, gaztetan sozialista eta atea zela adierazi zuenean. Heldua zelarik ere, sozialisten zale izan zen; txekiar anarkisten bileretara joan ohi zen Lehen

Mundu Gerraren aurretik; eta, azken urteetan, interes handia agertu zuen sionismo sozializatu baten alde. Hala ere, ez zuen inoiz jokabide aktiborik izan politikan, eta ez zuen

konpromisorik hartu. Judua zenez gero, Pragako alemaniar komunitatetik kanpo geratzen zen Kafka, baina intelektual modernoa zen neurrian, bere herentzia judutik at zegoen. Begi onez ikusten zituen txekiarren aldarrikapen politiko eta kulturalak, baina bere kultura alemaniarra zela-eta, ezin zuen haien alde egin. Beraz, bakardade sozialak eta sustrai faltak areagotu baino ez zuen egiten Kafkaren bizitzaren zoritxarra. Nolanahi ere, Pragako germaniar-judu intelektual zenbaiten adiskide egin zen, eta 1902an Max Brod ezagutu zuen, bigarren mailako artista, adiskide mina, miresle handia, bere obraren babeslea, bultzatzailea, interpretatzailea eta biografo nagusia izango zena.

Pragako Unibertsitatean Zuzenbide amaitu ondoren -ez zitzaizkion batere interesatzen baina-, aseguru konpainia batean hasi zen lanean 1907an. Lan hark ez zion idazteko betarik ematen ordea, eta 1908an beste konpainia batera aldatu zen. Hantxe egon zen 1922an tuberkulosiak jota erretiratu behar izan zuen arte, hil baino bi urte lehenago. Langile nekazina baitzen, lankide guztiek estimatzen eta errespetatzen zuten. Izan ere, Kafka, oro har, pertsona atsegina zen, argia eta umoretsua; baina lanaren errutina eta egiten zuen bizimodu bikoitza (gauetz idazten baitzuen beti) tortura bihurtu zitzaizkion, eta erabat nahastu zizkion harreman petsonalak: inhibizioak hondatu zituen Felice Bauer-ekiko harremanak (bi aldiz finkatu zuten ezkontza hitza, 1917an harremanak betiko hautsi zituzten arte). Geroago, Milena Jesenskarekin izan zituen maitasun harremanek ere ez zuten onik izan. Kafka gero eta ahulago zegoen osasunez, eta azkenean, lan bikoitzaren zama astuna ezin eramanez, gaixotu egin zen. 1917an tuberkulosia diagnostikatu zioten, eta handik aurrera bolada asko eman zituen osasun etxeetan.

1923an Berlina Joan zen aitaren familiarengandik ihes egin nahian eta literaturan murgiltzeko asmotan. Berlinen beste emakume bat topatu zuen, Dora Dymant Judu sozialista, baina 1924ko neguan arrunt gaizkitu zelarik, Pragara itzuli zen, Dorarekin. Handik gutxira hil zen Vienan.

1910 eta 1920 urteen artean bukatu edo taxutu zituen Kafkak bere obra nagusiak, baina ez zituen argitaratu nahi izan, eta, hala, bere testamentuan idatzirik utzi zuen eskuizkribuak erretzeko agindua. Bere adiskide minena eta mireslerik sutsuenak ordea, Max Brodek, denak argitaratu zituen egilearen nahiaren kontra. Hortaz, bizi zelarik, abangoardiako argitaratzaileek bultzatuta, justu-justu argitaratu



zituen obra batzuk, hala nola **Beschreibung eines Kampfes** (*Borroaldi baten deskribapena*, 1909), **Betrachtung** (*Gogoeta*, 1913), **Das Urteil** (*Kondena*, 1912an idatzitako istorio luzea), **Die Verwandlung** (*Metamorfosia*, 1915)...

Izan ere, bere lanari buruz zituen zalantzak zirela-eta, gainerako obra guztiak erre zitzala agindu zion Kafkak bere literatura testamentuaren betearazleari, Max Brodi. Eskaerari jaramonik egin gabe, **Prozesua**, **Gaztelua** eta **Amerika** argitaratu zituen Brodek, 1925ean, 1926an eta 1927an, hurrenez hurren; eta pieza laburren bilduma bat, **Beim Bau der chmneschisen Mauer** (*Txinako harresia*), 1931. urtean.

Inguratzen zuen munduaren behaketa etengabearen bidez, bera hil ondoren gertatuko ziren izugarrikeria asko iragarri zituen Kafkak.

Amerika eleberria, 1927an argitaratua -ez zen inoiz kontinente hartan izan-, jende ororen zorionaren amets amerikarraren parodia ia irragarria da.

Gaztelua, 1925ean argitaratua, da Kafkaren testurik handinahiena ez ezik, gaurko kontagintzaren erakusgarri

harrigarrietako bat; 1940ko hamarraldiko Europa gatazkatsuan sortuko ziren fenomeno batzuk agertzen ditu, horien artean faxismoen zitalkeria eta kontzentrazio esparruetako unibertsoa.

Mekanismo burokratikoak berriz, labirinto deformatzailea dira Kafkarengan —kezka azkenerako itomena sortzen baitute—; amairik gabeko eskaileretan eta korridoreetan zehar dabil bere nortasunaren bila **Prozesua**-ko errudun ustezko K. jaun protagonistak dohakabea.

Metamorfosia

Kafkaren *Metamorfosia* lanak eragin handia izan du XX. mendean zehar. Istorio hau kontatzen digu: Gregorio Samsa izeneko gazteak, goizean esnatzerakoan, intsektu bihurtu dela ikusten du. Animalia hauekin gertatzen ohi denez, bera akabatzea da inguruko pertsona gehienek egin nahi dutena; ez dute inolako errukirik. Hau da nobelaren abiapuntua. Protagonistak bere inguruko gizartearen ulertzintasuna jasan behar du, bere gorputzean gertatu den aldaketa dela-eta. Baina, intsektu bihurtu den arren, Gregoriok gizakien buru-argitasuna mantentzen du. Hala ere, bere logelatik irten barik bizi beharko da eta ez du inolako laguntzarik jasoko ez bere familiaren aldetik (arriba izan ezik) ezta gizarteko beste pertsona batzuen aldetik ere (laneko nagusia, esaterako). Lan honek bizitzako alderdi guztiz pesimista erakusten digu, Gregoriok ez baitu inolako laguntzarik jasotzen bizitzan aurrera egin ahal izateko eta ez da bere kabuz aurrera jarraitzeko gai. Gizarteak bizkarra eman dio eta ez dago egoera hori hobetu dezakeenik.




Pertsonaiak:

- **Gregorio Samsa**: Gregorio pertsonaia nagusia da. Gogor lan egiten du merkataritza bihurtu bezala gurasoak eta arreba mantentzeko.
- **Grete**: Gregorioren arreba da, 17 urtekoa. Etxeko lanen ardura bere gain hartzen du, neskame bati ordaintzeko lan ez dutelako. Biolina jotzen du eta bere ametsa musika eskola batera joatea da. Gregoriok ametsa egia bihurtzear dago. Nebaren itxura aldaketa dela eta, denda batean lan egin behar du. Hasieran, bere burua eskaintzen du Gregorio elikatu eta honen logela garbitzeko, baina, denboraren poderioz, nebaz nazkatzen da eta bera akabatzea proposatzen du.
- **Aita**: Gregorioren aitak zor handia du semearen nagusiarekin. Hori dela eta, Gregoriok ezin du gorrotatzen duen lana utzi. Duela bost urte erretiratu zen. Semearen itxura aldaketa gorrotatzen du eta horrek umore txarrez ipintzen du.
- **Ama**: hau ere erretiratuta dago eta asmaduna da. Nahiz eta semearen itxura aldaketak beldurra sortu, bera maitatzen jarraitzen du.
- **Gregorioren nagusia**: Gregorio lanera ez dela joan konturatzean, etxera datorkio bila eta zomorrotu bihurturik ikusten du.

ELEBERRIAK IDAZTEKO BIDE BERRI BATEN SENDOTZEA

1. Zein aldaketa dakar XX. mendeko nobelagintza berriak nobela errealistaren aldean?
2. Nobelagintza XX. mendearen lehenengo erdian: frantsesez, ingelesez eta alemanez idatzi zuten idazle bana aipatu; baita euren lan garrantzitsuenak ere.
3. Komenta ezazu James Joyce-ren *Ulises* eleberria: argumentua, izenburuaren zergatia, garrantzia...
4. Komenta ezazu *Denbora galduaren bila*: argumentua, kontateknika, gaia...
5. Virginia Woolf-en idaztinkeraren ezaugarriak azaldu; zeren aitzindaritzat jotzen da? Azaldu zehatz teknika hori eta eman adibideak.
6. Aipa itzazu XX. mendeko Nobelaren bialdiak eta aldi bakoitzean sartzen diren idazle garrantzitsuenak
7. Zer gertatzen zaie Samuel Beckett-en pertsonaiei? Nolakoak dira?
8. Zer da Nouveau Roman? Zeintzuk dira bere ezaugarriak?

LITERATUR GURUTZEGRAMA 5



Pragan jaiotako alemanerazko idazlea

1. Idazle horren eleberri labur ospetsua
2. Eleberri horren protagonistaren izena
3. Idazle horrek erabili zuen literatur hizkuntza
4. Errealitatea desitxuratuz artistaren barne mundua adierazi nahi duen korrante artistikoa
5. Idazle horren beste eleberri bat
6. Idazle beraren beste obra baten izenburua

7. *Metamorfosia*-ren protagonistaren abizena
8. Idazle horren abizena
9. *Metamorfosia*-n, protagonista bilakatzen den animalia-izena
10. Idazlearen jaioterria

Legearen aurrean (Franz Kafka, 1914)

Legearen aurrean atezain bat dago. Atezain honengana baserriko gizon bat etorri eta legeari sartzen uzteko eskatzen dio. Baina atezainak, erantzunez, oraindik ezin utz dezakeela sartzen dio. Gizonak gogoeta egin eta galde egiten dio ea geroago sartzen utziko ote duten.

—Litekeena duk —diotso atezainak—, baina orain ez.

Legerako atea irekirik dago, ohi bezala, eta atezaina alde batera doanean, gizona okertu egiten da, barruan zer den ikusteko. Atezaina, hartaz konturaturik, barre egin eta honela dio:

—Hire nahia horrenbestekoa bada, saia hadi sartzen, nire debekua gora behera. Baina kontutan har: ni ahaltua nauk. Eta ez nauk azken atezaina besterik. Aretotik aretora badituk, halaber, atezainak, zein zein baino ahaltuagoa. Eta hirugarren atezaina hain ikaragarria denez, nik neuk ezin diat haren itxura jasan.

Baserriko gizonak ez zituen eragozpen hauek aurretik pentsatu; legeak guztien eskumenean izan behar luke, pentsatzen du, baina orain atezainaz ohartzean, haren larruzko soingainekoarekin, haren arrano-sudur handiarekin, haren tartariar bizar luze, urri eta beltzarekin, itxarotea hobe dela erabakitzen du.

Atezainak aukeratu bat eman eta atearen alboan jezartzen uzten dio. Han egunetan eta urtetan itxaroten du. Kontaezinek aldiz sartzen saiatzen da eta atezaina bere erreguekin nekaratzen du. Atezainak maiz harekin elkarriketa laburrak izaten ditu, haren sorterriaz eta beste hainbat gauzaz galdetuz; horiek, ordea, arduragabeko galderak dira, jaun handienak bezalakoak, eta, bukatzeko, beti berresaten dio oraindik ezin utz dezakeela sartzen. Gizona, bidaiarako anitz gauzaz horniturik, dena sakrifikatzen du, duenik baliotsuena ere, atezaina erosteko. Horrek, izan ere, guztia onartzen du, baina honela dio: Onartzen diat, ahaleginen bat egin gabe utzi duala pentsa ez dezaan.

Urte luze horietan gizona ia etengabeki atezainari adi dago. Beste atezainez ahantzi eta legeari sarreratik duen oztopo bakarra hauxe dela pentsatzen du. Bere zoritxarra madarikatzen du, lehen urtetan arriskupean eta boz goraz, eta geroago, zahartuz doan heinean, bere kautarako murmurikatuz ez besterik. Hautzarora itzultzen da, eta atezainari urtetan egin dion behaketa luzean haren larruzko idunekoen arkakusoak ezagutzeraino heldu denez gero, arkakusoei ere otoi egiten die laguntzeko, atezaina komentzi dezaten. Azkenean, haren ikusmena ahuldu eta jadanik ez daki benetan argi txikiago ote dagoen ala begien engainua besterik ez ote den. Baina iluntasunaren erdian halako distira nabarmentzen du, legeari atetik iraungiezin irtena. Jadanik ez da luzaz biziko. Hil aitzin, bere buruan denbora luze horretako esperientzia guztiak galdera bakarrean biltzen dira, ordurarte atezainari egin ez diona. Atezainari keinu egiten dio, hurbil dakion, heriotzaren laztasunak gorputza gogortzen dio eta. Atezainak harekin mintzatzeko hagitz makurtu behar du, altuera ezberdintasuna gehitua baita, gizonaren kaltean.

—Zer jakin nahi duk orain? —galdetzen dio atezainak—. Aseezina haiz.

—Guztiak legera heltzen ahalegintzen dira —dio gizonak—; hortaz, nola izan daiteke, hainbeste urtetan, ni izan ezik, hemendik beste inor sartzen ez saiatzea?

Atezainak gizona azkenetan dagoela ulertu eta, haren zentzu ahulek bere hitzak adi ditzaten, belarrira oihuz honela dio:

—Ez zian inork hemendik sartzetik, sarrera hau hiretzat besterik ez baitzen. Orain bera ixtera noak.

(Itzultzailea: Xabier Kintana)